

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 52. zk (urria 2022)

Etenik ez, herriko jaietan!



Elkarrizketa:
Laura eta Pedro

Hitzar komunitatea:
gure energia

Hizkuntza datuak
aldatzen doan herria

aurkibidea

03	Udaleko berriak
04	Eskola
05	Guraso Elkarteak
06	Haur eskola
07	Bizi Nahi elkarteak
08-10	Ikus-entzunezkoak
11	Motzean
12-15	Hitzar, herria pizteko komunitatea
16-20	Elkarrizketa: Laura eta Pedro
21	Natura
22-25	Festen kronika
26-28	Hemeroteka
29	Euskaraldia
30	Liburutegi txokoa
31	Errezeta / Euskararen atala
32	Agenda

Sarrerako bertsoak

Duina:
Agur sagar beltzaran

Ate joka heldu da
jada udazkena
aurrean degu orain
opor ondorena,
kurto berriarekin
iritsi da trena,
antolaketa lanez
bete -bete dena
ondo erabil dezagun
ekarri duena.

Ikusentzunezkoen
inguruan berriz
Uemak sakondu du
irizpide garbiz,
erraztu dezaio gun
laguntza eskainiz
bultza egin deiogun
dagonari premiz
soberakinak kenduz,
falta dena jarritz.

Bikote madrildarra
gugana iritxi
zeresana badute
ez gainera gutxi,
festen kronika, berriz
degu harri-bitxi
umore punttuari
nahi diogu eutsi
osasuntsua da ta
aterik ez itxi.

agurra



Festak pasatu berri ditugun honetan iritsi zaigu Itsasondo 2.0 aldizkariaren 52. zenbaki hau ere. Udazken giroarekin batera, hostoak erortzen hasi dira. Ez al zaizue plan ederra iruditzen arratsalde euritsu batean, etxean goxo-goxo, herriko berrien inguruan irakurtzea? Hartu manta eta edari bero bat, eta gozatu esku artean duzuen zenbaki honekin.

Izan ere, azken hilabete hauetan zeresana eta zer kontatua izan dugu herrian. Hori dela eta, errepasso labur batekin hasiko dugu aldizkaria. Irakurtzeko prest, Itsasondo? Has gaitezen!

Orri hauen artean, eskolako eta haurreskolako berri izango dugu. Izan ere, ikasturte berriaren hasierarekin loturiko antolaketa eta ongietorria nola egiten duten azalduko dizkigute. Beraz, ikusiko dugu herriko txikiek eta ez hain txikiek ikastaro berria nola hasten duten.

Gainera, nabarmentzekoa da Itsasondoren energia komunitatea sortzen ari garela; gaur egun energia kontuak izaten ari diren gorabeherak ikusita, proiektu erabat interesgarria, egungo eta etorkizuneko energia beharrak kontuan izango dituen.

Eta nola ahaztu festak ere pasatu berri ditugula... jaia, algara eta poza nagusi izan ditugu herriko plaza inguruan, eta horri dagokion kronika ere irakurgai izango dugu datozen orrialdeetan. Begiratu ea festetako argazkien artean zeuen burua ikusten duzun!

Horrez gain, haur eta nerabeen ikus-entzunezkoen erabileraren datuak aztertuko ditugu, eta elkarrizketen txokoa Madrildo bikotearen berri izango dugu. Amaitzeko, ohiko atalak diren udaleko berriak, erreze- ta, euskararen atala... ere ez dira faltako.

Gehiago luzatu gabe, goza ezazue irakurketaz eta pozik bizi, Itsasondo!

.....

Bi udalbatza egin dira azken hilabeteotan Itsasondon, jarraian batzar horietan landutako gaiez gain, alkateak oarnturiko dekretuak eta eskatutako dirulaguntzak labur azaltzen dira.

.....

Azken hilabete hauetan bi udalbatza izan dira: 2022ko ekainaren 24ean eta irailaren 29an eginikoak. Bertan, besteak beste, honako gaiak jorratu ziren:

- Iker Mendizabal Garroren zinegotzi kargu hartzea, Maddi Alberdi Salegiren ordeiz.
- Itsasondoko 2023ko jaiegun ofiziala izendatzea.
- Ogasun eta finantza departamentua eta Itsasondoko udalaren arteko lankidetz hitzarmena onartzea, Informazio lagapenerako.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Itsasondoko Udalaren arteko lankidetz hitzarmena onartzea, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.
- Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresak aurkeztutako 4. egiaztagiria onartzea, ur hornidura sarea egiteko lanetan.
- 2022ko aurrekontuan eginiko kreditu aldaketak onartzea.
- Osasun sistema publikoa babestearen inguruan EH Bilduk aurkeztutako mozia onartzea.
- Itsasondoko udalak mediku etxea nagusia 7, 1. solairua maizterria alokairua amaitzen zaiola eta, bi urteko luzapena ematea.
- Sasoi eraikuntzak s.l. enpresak aurkeztutako faktura eta 5. zertifikazioa onartzea. ur hornidura sarea.
- Itsasondoko parkearen 2. fasea, kontratu txiki bidez Kimu Bat paisaia-ri esleitzea.
- Hezitzaileak kontratatzeke lizitazio pleguak onartzea. Esleipena egin bitartean Itsasondorako hezitzaileak kontratatzeke abendurarteko zerbitzu kontratu txikia onartzea.
- Energia komunitateak, Itsasondoko udala Hitzar koop s. kooperatibako bazkide laguntzaile egitea.
- Biziola kooperatiba eta Itsasondoko udalaren arteko hitzarmena.
- Herri bideen aldaketa.
- Terreno erosketak, Murumendi korredorea.

ALKATEAK AZKEN HILABETEETAN HARTURIKO DEKRETUAK:

- Lanpostuen erregularizazioen inguruko dekretua egin da.
- Bost obra baimen eman dira.
- Gizarte larrialdietarako bost laguntza banatu dira.
- Sasoi eraikuntzak enpresaren faktura onartu da.
- Ez-gaituentzako aparkamentu txartel bat onartu da.
- Gañera enpresari Urkia, Saro eta Iraolako bideak konpontzeko lanak esleitu zaizkio.
- Euskara ikasteko hiru dirulaguntza eman dira.
- Bi ezkontza egiteko alkateordeari eskuduntza esleitu zaio.
- Udaleko materiala utzi da.
- Egurra ateratzeko baimen bat eman da.
- Kreditu aldaketa bat egin da.
- Lursail erosketa bat egin da, Murumendiko korridorean.
- Lursailen dohaintza bat onartu da.

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAK

- Eskola agenda 2030 ekintzak burutzeko dirulaguntza eskatu da.
- EVerda udaletxearen pabiloian instalazio fotovoltaikoa jartzeko laguntza eskatu da.
- Murumendi natur ondarea zaintzeko laguntzak eskatu dira.
- Liburutegiko funtsak eta irakurzaletasuna bultzatzeko laguntzak eskatu dira.

Ongi etorri!

Oporrak amaitu zaizkigun honetan, 2022-2023 ikasturtearen aurrean, eskolako irakasleok ongietorria eman nahi dizuegu.

Irailaren 8an guztiok eskolan elkartu, eta ikasturte berriari hasiera eman diogu.

Berezia eta bikaina izango da aurtengoa, ziur baietz!

Elkarri, elkarrekin eta elkarrenganako gertutasunak indar handiagoa izango du, eta bide-lagun ugarirekin topo egingo dugu gure ibilbidean.

Batzuentzat, 2-3 urtekoentzat, esperientzia berria izango da, aurreneko aldiz eskolara etorriko zarete-eta.

Urduri, beldurtuta, agian, eta emozioz beterik etorriko zaizkigu.

Eta beraiei gure irribarrerik goxoen eskainiko bagenie?

Gogoan al dituzue zuen eskolako lehenengo egunak? Zuek ere eskertzen zenuten inguruko babesa, ezta?

Besteok, eskola ezaguna izanagatik ere,

ikasturteak ekarriko dizkigun bizipen berrien bila hasiko dugu ikasturtea.

Euskaraz bizi eta jolastuko dugu!

Euskara ama hizkuntza ez duten lagunen hizkuntza berriarekin ikusiz eta partekatuz.

Elkarrekin ikasiz aberastuko gara.

Honela, ONGIETORRI! esaten dugun bezala, WELCOME!, BIENVENUE!, BIENVENIDOS!, AHLAN WA SAHLAN!... ere esango diogu elkarri!

Hasiera polita izan dugu, herriko festak ere ospatu ditugu eta.

Aukera ezin hobea lagunartean egoteko!

Gure aldetik, besterik ez zuek ikusteko eta ezagutzeko irrikatan gaude, zuekin ikasteko, zuekin hobetzeko, zuekin eskolako jardunaz gozatzeko.

**URKIPE ESKOLAKO
IRAKASLEAK**



Bukatu eta hasi

Ekainarekin batera, urteroz bezala, ikasturteari bukaera emateko ordua iritsi zen. Festa batekin agurtu genuen ikasturtea. Bertan bazkari eder bat egin ondoren, eskolan azken urtea egindako gazteak agurtu genituen. Ikasleek esker oneko hitzak izan zituzten irakasleentzat, aurrez grabatutako bideo batekin. Ondoren, irakasleen aldetik, ikasleek beren eskola ibilbideko argazki bilduma jaso zuten.

Ikasturte berria ere hasi dugu, dena ondo bidean, urteroko ekintzak normaltasunez egiten saiatuko gara. Hala nola gau beltza, gaztaina-jana, mendi irteera, Olentzero eta Mari Domingi...

Ikasturtea hasi eta segituan herriko festak izan ditugu. Larunbat gauean hanburgesa-jana prestatzeko aukera izan genuen. Bertan, Zeberio harategiko hanburgesa ederrak jateko aukera egon zen. Giro ederra sortu zen, eta sabela bapo beteta gelditu ginen.

Hemen daukagun aukera hau baliatuz eskerrak eman nahi dizkiegu ekintza honetan lagundu zeniguten boluntario guztiei.



Ikasturte hasiera

Ikasturte berria hasi dugu dagoeneko Itsasondoko Urkipe haurreskolan. Irailaren 1ean hasi ginen hezitzaileak lanean; eta, aurtengo jai egunak tarteko, haurrek irailaren 7an izan zuten lehen eguna.

Ohikoa den moduan, bi hezitzaile (Miren eta Amaia) gaude aurtien ere kurtsoa hasteko. Ikasturtean zehar, haur kopuruak gora egin ahala, hezitzaile gehiago izatera heldu ohi gara.

Iraillean, zortzi haurrekin hasi dugu kurtsoa, aurreko kurtsoko lau haur ditugu; eta beste lau haur berriak dira. Haur berrien gurasoekin, taldeko

bilera egin dugu kurtsoa hasi baino lehen; eta besteekin, aldiz, bakarkakoa. Bertan, egutegia emateaz gain, beharrezko informazioa partekatzen dugu gurasoekin: haurreskolako funtzionamendua, arauak, haurraren ohiturak...

Aurreko ikasturteko haurrek ez dute derrigorrez egokitzapen prozesurik egin behar. Haur berriek, aldiz, hamar egunekoko egokitzapen prozesua egin beharko dute. Hala ere, haur askorentzat epe hori ez da nahikoa izaten. Lehen egunak espazioa, hezitzailea, haurrak, soinuak eta eguneroko ohitura berriak ezagutzeko izaten dira. Ikusi behar dugu aldaketa handia dela haurrentzat. Batzuk, hamar egun horiek pasatu,

eta oraindik ez dute haurreskolan geratu nahi izaten, ezta gurasoengandik banandu ere, ez baitute hezitzaileekin atxikimendu esturik sortu. Beraz, haurren egokitzapena hamar egunez harago doan zerbait da, eta esan genezake gauza asko biltzen dituen etapa bat dela esan genezake.

Nahitz eta kurtsoa zortzi haurrekin hasi dugun, urtean zehar, etengabe haurrak haurreskolan izena ematen dute. Haurreskolan hasi nahi duten haurren gurasoek kontuan izan behar dituzten hainbat puntu aipatu nahi ditugu:

- Matrikulazio epea urtean behin izaten da, apirilean, hain zuzen. Hori iraillean hasi behar dutenentzat izango da soilik. Matrikulazio hori, online edo haurreskolan bertan egin daiteke.
- Urtean zehar matrikulatu nahi dutenek, aldiz, gutxienez, hasi behar duten data baino hamar egun lehenago egin beharko dute matrikula. Eta, gehienez, hilabete lehenago.



Aurtengo jai hasierako pregoilariak

.....
Pandemia osteko
lehen ohiko jaiak
izan ditugu 2022koak,
eta pozez hartu ditugu
berriro gure Ijitoaren
jatsiera eta
jaien hasiera.
.....



Urtez urte pregoilariak aldatzen joaten dira, eta aurtengoan erreleboa herriko jubilatuek hartu dute. Bizi Nahi elkarteko juntakideak izan genituen herriko balkoian, pregoia botatzen eta ijitoa jaisten.

Beraien elkarteko izenak dioena bezala, bizi nahia argi adierazi ziguten, eta festarako deia egin zieten herritar guztiei.

Hemen pregoian botatako hitzak. Gaztelekuko gazteei pasa zieten datorren urtean pregoia botatzeko ardura. Belaunaldiz belaunaldi, herria eginez!

Herriko jubilatuek festen ondoren ere badute elkartzeko zita, eta jubilatuz bazkaria izango dute, urriaren 23an, Nautiko tabernan. Etxeetan informazio gutuna jasoko duten arren, hilaren 15erako eman beharko dute izena udaletxean. Meza nagusia eta jubilatuetan salda hartu ondoren egingo dute bazkaria.

Ohi bezala, ez daude geldi, memoria tailerra eta bingo saioekin jarraitzen dute. Horregatik, 65 urtetik gorako

herritarrek gonbidatu nahi dituzte elkarteko bazkide egin daitezzen.

Kaixo guztioi!

Iritsi dira Itsasondoko jaiak. badirudi aurtun, pandemia ostean, festak normaltasunez ospatzeko aukera izango dugula.

Bizi nahi jubilatuz elkartetik herritar guztiei dei egin nahi diegu festak ongi pasatzeko, ekintzetan parte hartzeko eta sortuko den giroan murgiltzeko!

Festak guztionak eta guztiontzat dira, eta horrek esan nahi du, lanak guztion artean eginez gero, denok ongi pasatzeko aukera izango dugula. Badakizue, hortaz, ekintzetan parte hartu eta horiek antolatzen lagundu!

Festak jai giroan, ederki pasatzeko dira, eta ozen esan nahi dugu azkenaldian zoritxarrez entzuten ari garen emakumeen kontrako erasoak gurean ez ditugula onartuko. Eraso sexistarik ez! festak berdintasunean ospa ditzagun! ez itsasondon, ez inon, erasotzaileak ez zarete ongi etorriak!

Nola ez, egun hauetan ere herrian ez dugun Mikel izango dugu gogoan. Denak etxean nahi ditugu!

Festetan dantza, jan eta edan egingo dugu, besteak beste. Aukera paregabea dugu hori guztia gure hizkuntzan egiteko. Astindu min-gaina euskaraz!

Benoa, esandakoa, gozatu festak, ongo pasatu eta zaindu ondokoak; eta, nola ez, baita herria ere. Txukun mantendu ditzagun herriko txokoak, guztiok eroso senti gaitezten. Kanpotik datozenak ere, gozatu dezaten gure herriaz!

Denetarik ekintzak izango ditugu: jolasak, afariak, kontzertuak, puzgarriak, sagardo dastaketa, gure herritarren talentuak ezagutzeko ijito show-a... ez dago aspertzeko aukerarik! Has dadila festa!

Gora Itsasondoko jaiak!

Ikus-entzunezkoen kontsumo-ari buruzko inkesta bat egin du UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, 85 udalerri-tan. Bertan LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleen erantzunak jaso dira. Guztira, 11.571 inkesta jaso dira, eta horietatik 25 dira Itsasondokoak.

Euskaraz bizi nahi duen herria

Azaroaren 4a

Gazteak salto!

18:00etan,
Gaztelekuan

Hizkuntza ohituren inguruko inkesta egin dute herriko haur eta gaztetxoek

Urkiye Herri eskolaren laguntzaz, 14 inkesta egin dituzte haurrek LH 4, 5 eta 6 mailetan. Horiez gain, DBHko eta Batxilergoko 11 ikaslek ere bete dituzte galde-tegiak, udalak bidalitako gutuna jaso ostean. Testu honetan jaso ditugu Itsasondoko datu nagusiak. Dena den, hau laburpen bat da, eta txostena osorik ikusteko aukera duzu udalaren webgunean: www.itsasondo.eus/euskara




HIZKUNTZA EZAUGARRIAK

Galdetegia ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzkoa den arren, galdetegiaren lehen zatian, ikasleen hizkuntza ezaugarriak jaso dira. Batetik, lehen hizkuntzaren inguruan galdetu zaie ikasleei. LHko ikasleen %64,3k euskara du lehen hizkuntza; eta DBH eta Batxilergoko ikasleen %63,6k ere bai.





Jarraitzeko, ikasleei galdetu zaie ea zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto. LHn, ikasleen %50 da hobekien euskaraz moldatzen dena; BHN, berriz, %81,8k adierazi dute euskaraz moldatzen direla ondoen.

Atal honekin bukatzeko, ohiko bizimoduan euskara zenbat eta noiz erabiltzen duten galdetu zaie. Bost esparru banatu dira: etxea, ikasgela, ikaskideak gelatik kanpo, lagunak, eskolaz kanpoko ekintzak. Badira desberdintasunak gunez gune eta adinez adin. Esparru guztietan euskaraz gehiago hitz egiten dute DBHko eta Batxilergoko ikasleek. Dena den, nabarmentzekoa da LHko ikasleen artean ikasgela dela euskaraz gehien egiten duten gunea (%75); eta DBH eta Batxilergoko gazteen artean, lagunartea (%90,9).

Lehen hizkuntza LHn



Lehen hizkuntza DBHn



IKUS-ENTZUNEZKOAK

Telebista kateak, plataformak eta serieak hartu dira kontuan atal honetan. Telebista kateen inguruan galdetu zaie lehen-dabizi ikasleei. Horretarako, azken hiru egunetan ikusi dituzten kateak aukeratzeko eskatu zaie. Honakoak dira bost kale ikusienak, talde bakoitzean:


LEHEN HEZKUNTZA
Clan: %50
Euskarazko tokiko telebista: %35,7
Boing: %35,7
ETB1: %28,6
Disney: %28,6

BIGARREN HEZKUNTZA
ETB1: %54,5
FDF: %45,5
ETB2: %27,2
ETB3: %27,3
Antena3: %18,2


Plataformei dagokienez ere, galdetu zaie zein plataforma kontsumitu dituzten azken hiru egunetan. Bi adin tartean Netflix da nagusi, horrez gain, Amazon, Movistar+, HBO eta Nahieran ere ikusten dituzte. Bigarren hezkuntzakoek MiTe-le plataforma ere aipatu dute.

Telebistak eta plataformak, biak, kontuan izanda, galdetu zaie zein hizkuntzatan ikusi duten azken serie edo marrazki biziduna. LHko ikasleen artean, %14,3k ikusi dute euskaraz eta %85,7k gaztelaniaz. BHko ikasleen artean, berriz, anitzagoak dira erantzunak: %18,2k euskaraz; %54,5k gaztelaniaz; %9,1k ingelesez eta %9,1k beste hizkuntza batean. Beste %9,1ek esan du ez duela ikusi serierik.

Azken telesail edo marrazki bizidunaren hizkuntza LHn



Azken telesail edo marrazki bizidunaren hizkuntza BHn



SARE SOZIALAK

Sare sozialek gero eta eragin handiagoa dute haur eta gaztetxoek jardunean, eta ikus-entzunezkoek leku handia dute arlo honetan ere. Batetik, gaztetxoei galdetu zaie zer sare sozial erabiltzen dituzten; eta, bestetik, zer hizkuntzatan egiten duten.

Erabilerari dagokionez, LHko haurren artean, TikTok (%78,6) eta Youtube (%74,1) dira nabarmen nagusi. Denborari dagokionez, TikTok 15 minutu eta ordubete artean erabiltzen dute; eta, Youtube, bi ordu eta 15 minutu artean.

BHko ikasleek, berriz, aplikazio gehiago erabiltzen dituzte. Whatsapp (%100), TikTok (%100), Youtube (%90,9), Snapchat (%81,8) eta Instagram (%72,7) dira erabilienak. Denborei dagokienez ere, gehiago erabiltzen dituzte. Gehienek 2 ordu eta 15 minutu artean erabiltzen badituzte ere, badira bi ordu baino gehiagoz erabiltzen dituztenak ere.

Kasu guztietan, gaztelania da hizkuntza nagusia. Youtube-ri erreparatuz, esaterako, batez ere gaztelaniaz ikusten dute edukia LHko ikasleen %71k eta BHko ikasleen %91k. Gorabeherak gorabehera, datu horiek errepikatu egiten dira gainontzeko sare sozialetan ere.

LANSIAO ZIKLOA HERRITARRENTZAT

Testu honetan aipatutakoa ikerketaren lagin bat den arren, Itsasondoren kasuan, besteak beste, bi ondorio atera daitezke. Batetik, zenbat eta gazteago, orduan eta nabar-

menagoa dela gaztelaniaren erabilera herritarren bizimodu-
duan. Bestetik, ikus-entzunezkoen kontsumoa ia erabat gaztelaniaz dela, eta horrek eragin nabarmena duela, batik bat, haur eta gazteen hizkuntza ohituretan.

Jakin badakigu gaztelaniaz zein beste hizkuntzetan eskaintza zabalagoa dela, euskararena baino. Dena den, badira herritar, hezitzaile eta guraso bezala har ditzakegun jarre-
rak, esparru guztietan euskara sustatzeko. Behar hori ikusita, herritar guztiei zabalduko honako hitzaldi zikloa antolatuko dute Itsasondoko Udalak, Urkipe Herri Eskolak eta UEMAK:

• Euskara Itsasondoren aldatzen ari den herria:

Kale erabilerako eta eskolako jolastokiko neurketen emaitzak.

Gaztetxoek ikus-entzunezko inkestak datuen aurkezpenean. Herritarren artean, aurrera begirako erronkak finkatzeko dinamika arina.

• Nola eragin gure seme-alaben ohituretan?

Euskarari eusteko estrategien eta baliabideen zerrenda, gurasoentzat.

• Ispiluari begira: LH 1, 2 eta 3ko ikasleekin saioa.

Familiako hizkuntza ohituren inguruan hausnartzeko saioa.

• Gazteok salto: DBH 3-Batxi2 arteko gazteentzat saioa.

Gazteekin datuak landu, errealitatea ezagutu eta aurrera begira jartzeko saioa.

Nerea Etxebarria eta Txarly Portillo

.....
Badira sei hilabete Itsasondon bizi
direla, gustura sentitzen dira
beraien semearentzako herria
aproposa aukeratu dutelako.
Jendearen jatortasuna baloratu dute.
.....



Noiz etorri zineten Itsasondora bizitzera?

2022ko apirilean.

Non biziz zinen lehen?

Alonsotegin, Bizkaian.

Zergatik erabaki zenuen

Itsasondora bizitzera etortzea?

Nire bikotekide Txarlyri lana hobetzeko aukera suertatu zitzaion Gipuzkoan, baina lurraldean bertan bizitzea eskatzen zioten. Herri txiki eta lasai bat aurkitu genuen, eta ingurua asko gustatu zitzaigun. Itsasondo gure behar pertsonalera eta ekonomikora egokitzen den herria da.

Zer duzu gogoan etorri zinen lehen egunaz?

Lehen aldiz pisua ikustera etorri ginen egunean, izugarri gustatu zitzaigun, herri lasaia eta naturaz inguratua da. Gainera, Ordiziatik oso gertu dago, eta eskura ditu beste zerbitzu batzuk ere.

Zein lanbide daukazu?

Ni okina nintzen lehen, baina nire lana utzi nuen Itsasondora etortzeko; eta, orain, langabezian nago. Txarly azpiestazio elektrikoan mantenurako tekniko espezialista da.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen? Eta zer duzu gustuko?

Orain arte dena positiboa da. Gehien gustatu zitzaiguna izan zen inguru oso aproposa dela gure bi urteko semearentzat. Izan ere, guretzat hori zen garrantzitsua: herria gure semearentzat egokia izatea. Jendea abegitsua da, eta badirudi komunitateak garrantzia duen herria dela hau.

Zein zaletasun dituzu?

Bidaiatzea gustatuko litzaiguke, baina baita gure ingurua ezagutzea ere: paseatzea, gastronomia probatzea...

Janari bat?

Hemengo txistorra eta gazta dira gehien gustatu zaizkigunak.

Edari bat?

Garagardo freskoa.

Itsasondoko edo Goierriko txoko bat?

Oraindik ikusteko eta ezagutzeko toki asko geratzen zaizkigu, azken hilabete hauek kokatzeko behar izan baititugu. Errekaren ondoan paseatzea, Ordiziako azokara bueltan bat ematea, orokorrean inguruan dauden herriak ere gustatzen zaizkigu.

Zerk sortzen dizu irribarra?

Nik uste dut Liherrek sortzen digula irribarre zabalena, bera Itsasondon zoriontsu dela ikustek lagundu digu aldaketa hau errazago egiten.

Itsasondon biziko ez bazina?

Ormaiztegi asko gustatu zitzaigun, eta beste aukera bat zen. Pentsatzen dut egunen batean Itsasondotik mugitzea erabakitzeko, Bizkaira bueltatuko ginatekeela. Bestela, beste aukera bat da Kataluniara joatea, gure familiaregandik gertu egoteko, horren falta sumatzen baitugu gehien.

Hitzar, herria pizteko komunitatea

.....

Ingurumena errespetatu, energia garbia
ekoitzi eta burujabetza energetikoa
lortzeko asmoz, Hitzar komunitatea sortu
dugu herritar talde batek, udalaren eta
Goienar elkartearen laguntzarekin.
Etorkizunean, herrian sor daitezkeen
beste behar batzuei erantzutea ere
izango da komunitatearen zeregina.

.....



Aspalditik, hainbat herritarren buruan bueltaka zebilen ideiak argia ikusi du: Hitzar komunitatea sortu dugu.

Azkenaldian, igoera handia izan du argindarrak. Urrearen pare ordaintzen ari gara. Horretaz guztiaz arduratuta, eta klima larrialdi egoerari erantzun bat emateko premia ikusirik, herritar talde bat bildu, eta Hitzar sortu dugu. Itsasondoko Udalaren eta Goiener erakundearen bultzadaz.

Helburu zehatz eta jakin batekin sortu dugu komunitatea: etorkizun batean, herriko burujabetza energetikoa lortzea; energia garbia ekoiztea, ingurugiroaren mesedetan; eta herrian kontsumituko den energia, herrian bertan ekoiztea eta banatzea. Erronka potoloak dira horiek, baina pausoka-pausoka lor daitezkeenak. Herrian sortu eta kontsumitzea, posible delako!

Ez dira horiek, baina, komunitate sortu berriaren erronka bakarrak: etorkizunean, herrian sor daitezkeen beste hainbat beharrei erantzun bat ematea ere bada gure asmoa, baita elkarlanean aritzea, herritarren indarrak biltzea eta lanerako eskuak batzea ere.

Azken batean, auzolana izango da Hitzarren lan tresna nagusia; auzolanetik sortu da, eta auzolanean lan egingo dugu. Auzolanean aritzea da herritarren, lagunen eta bizikideen artean zereginak egitea, eta halaxe jardun nahi dugu komunitate berrian. Herritarrik gabe ez dago komunitaterik, ez dago herririk eta ez dago lanak egiteko indarrik. Hala bada, gure asmoa da herritarren arteko harremanak indartzea, gizarte kohesioa lor-

tzea eta herrian sor daitezkeen arazoei elkarlanean irtenbide bat bilatzea.

Hitza, hitzarmena, konpromisoa eta herritarra dira Hitzar izenaren atzean ezkututzen diren hitzak; herriaren eta herritarren arteko adostasun eta hitzarmen batetik sortutako taldea delako, herrian sortuko diren arazoei-izan energia, izan elikadura, izan beste edozein behar-argia eman nahi dien komunitatea delako.

Helburu sozialak, ekonomikoak eta energetikoak dituen komunitatea da Hitzar. Asmoa da Itsasondon gastatzen den energia benetako beharretara mugatzea eta herrian bertan ekoiztea.

Horretarako, naturak ematen dituen baliabideak aprobetxatzea da helburua: eguzkia, ura eta haizea. Burujabetza energetikorako bidea jorratzen hasteko, eguzkiaren argia jasotzen eta eraldatzen hastea erabaki dugu, une honetan eguzki plakak jartzeko dirulaguntzak eskaintzen dituztelako instituzioek, eta aukera hori baliatzea interesgarria dela erabaki dugulako komunitatean. Horretarako, herriko zenbait eraikinetako teilatuetan plaka fotovoltaikoak jarri dira.

Lehen plakak udaletxeko teilatuan jarri ziren, 2020 urtean. Egun, udal eraikinean gastatzen den energiaren %25 plaka horiek ekoiztutako da.

Frontoiko teilatuaren azalera handia baliatuz, 120 plaka fotovoltaiko jarri ziren Errota pilotalekuan. Plaka horiek urtero ia 200 kWh energia ekoiztiko dutela aurreikusten da. Hirugarren pauso bat eman du udalak,

eta Ibaiondo industriagunean duen pabiloiaren teilatuan eguzki panelak jartzea aurreikusten du. Horretarako, instituzioetatik diru laguntzak jaso dira. 16.000 euroko kostua badu ere proiektuak, eta 14.200 euroko laguntzak jaso dira.

Itsasondoko Udala Hitzar komunitateko bazkideetako bat da, eta, hala, orain arte eraikin publikoetan jarritako eguzki plakak komunitatearen ondasun izatera pasatuko direla adierazi digu. Komunitateak, beraz, abiapuntu garrantzitsua du: orain arte herrian jarritako eguzki plaken ekoizpena berea izango da, epe laburrean.

Aurrera begira, Hitzar komunitateko kideok aztertu eta erabakiko dugu herriko zein beste teilatu baliatu daitezkeen plakak jartzeko, edota zein beste natur baliabideren bidez lor daitezkeen energia. Guztia komunitatean erabakiko dugu.

Inongo proiektutan sartu aurretik, baina, azterketak egingo dira: naturak eskaintzen dituen baliabideak eta aukerak aztertuko dira; etxebizitzaren isolamendua begiratu da; eta, beraz, etxebizitzek duten efizientzia energetikoa aztertuko da; argindarraren fakturak ere aztertuko dira, adituen laguntzaz. Egoe- ra aztertzea izango da, beraz, edozein proiektuaren abiapuntua. Behin azterketak eginda, eta komunitatearen ahalmena eta baliabideak kontuan izanda, proiektu zehatzak burutuko dira. Komunitateko kideon artean adostuko dugu proiektuak nola ordainduko diren ere: diru laguntzetatik, komunitateak kuo- tetatik bildutako dirutik edota ekarpen gehigarri bat eginda.

Lortutako onurak nola banatuko diren ere Hitzar kideen artean erabakiko dugu: bazkide bakoitzak egindako ekarpenaren arabera izango den edo kide bakoitzaren egoera sozioekonomikoaren arabera izan behar duen, esaterako. Bestelako irizpide batzuk ere egon daitezke, baina onuren banaketan irizpideak Hitzar kideok erabakiko ditugu.

Oraindik, bide luzea dugu egiteko, baina, dagoeneko, hasiak gara lehen urratsak ematen. Pauso sendoagoak emateko, orde, zure parte-hartzea eta indarra behar dugu, herritarren esku baitago Hitzar komunitate sendoa eta indartsua izatea, energiari beteriko komunitatea izatea.

IZENA ETA LOGOTIPOA

Ariketa txiki baten ondorioak dira komunitatearen izena eta irudia. Lantaldean, hitz zerrenda luze batetik abiatu, eta lanketa bat egin zen, Hitzar izena sortu zen arte.

Hitzar izenak bere baitan ditu hitza, hitzarmena, konpromisoa eta herritarra. Eta Gure Energiak esan nahi du Hitzarkideen indarra, herritarren lankidetzeta eta auzolana.

Irudiak, berriz, eguzkia, natura, bailarak, mendiak eta komunitatea irudikatzen ditu. Eta irudiak berekin ditu natur baliabideen koloreak: uraren urdina, lurraren eta basoen berdea eta eguzkiaren eta beroaren horia.



EGUZKIA



NATURA / BAILARA / MENDIAK

KOMUNITATEA
AUZOLANA

IKURRA

Hitzar, Itsasondoko Udalak, herritarrekin eta Goienerrekin batera martxan jarri duen energia-proiektua da. Naturak eskaintzen dizkigun baliabideekin energiaren burujabetza lantzeko helburua du kooperatiba honek eta herritarren parte-hartzea ere bultzatu nahi du, auzolana onarri hartuta. Hitzar-erako bazkideak lortzeko kanpaina bat martxan jarri amoz. lehenengo lana Hitzar kooperatibaren marka sortzea da.



MURUMENDI / USURBE



TXINDOKI



EGUZKIA

Marka eraikitzen hasteko erabili den lehen kontzeptua BALIABIDE NATURALAK izan da. Itsasondoren kokapena kontutan hartu eta mendi artean dagoen bailara baten elementuak hartu dira.



ura / urdina



lurra-basoa / berdea



beroa / horia

KOLORE KORPORATIBOAK

Kolorea da tresnarik indartsuenetako bat edozein marka-balio adierazi nahi denean. Kolorea oreka berezi batekin erabiltzen dugu erraz identifikatu gaitzaten.

BAILARA
Eskualdea irudikatzen
duen ikurra, forma.



ENERGIA ITURRIA
Energia sortzeko eskura dagoen baliabide
naturalak: basoak, ura, eguzkia.

HERRITARR
Herritar izena/nortasuna
ematen dion atzizkia.

hitz
ar. GURE
ENERGIA

HITZARMENA
Hitza hartu, konprometua.

KOMUNITATEA
Elkarrekin onarriari
dagoen gakoak, gurea.

izena, mezu nagusitik
berezitako puntua

MARKA KOLORETAN

BAZKIDE IZATEAREN ONURAK

ONURAK INGURUMENEAN:

- Itsasondon KM0 energia jasagarria eta %100 berriztagarria sortzen lagunduko duzu.
- Berotegi efektua eragiten duten CO2 isurpenak murrizten lagunduko duzu, herritarren bizi kalitatea hobetuz.

ONURA EKONOMIKOAK:

- Zure fakturan aurreztuko duzu.
- Aholkularitza energetikoa jasoko duzu; kontsumoa nola gutxitu, fakturak ulertu...

ONURA SOZIALAK:

- Ahaldundu egingo zara, zure etorkizuna ez dadin beste batzuen erabakien menpe egon.
- Energia arazoa baino, aukera bihurtu nahi dugu.
- Komunitateko parte izanda, herriko gizarte kohesioa indartzen lagunduko duzu, herritarren sarea eta auzolana indartuz.

NOLA EGIN BAZKIDE

Irailaren 28an egin zen Hitzar komunitatearen aurkezpena, Kulturgunean. Horrez gain, herriko elkarteetan zein auzoetan bilerak egin dira. Herriko jaien osteko hurrengo lau ostiraletan, pintxo potea egiten da herrian, eta egun horietan, komunitateko kideok plazan mahaia jarriko dugu informazioa eman, zalantzak argitu eta bazkide egiteko eskuorriak banatzeko, inork bazkide egin nahi badu.

Horiez gain, badaude bazkide egiteko beste bide batzuk ere: www.itsasondo.eus webgunean (www.itsasondo.eus/node/10373), **hitzar@itsasondo.eus** posta elektronikoa bidez, edota Kaxintane tabernan zein Itsasondokoop janari dendan dauden eskuorriak beteta.

Herritarrek, enpresak zein udalak izan daitezke Hitzarkide, eta ez dago zertan Itsasondon errolatua egon. Hitzarkide egiteko, urteko gutxieneko kuota 20 eurokoa izango da. 20 euro horiez gain, herritar bakoitzak nahi beste diruko ekarpena egin ahal izango du. Borondatezko ekarpen hori kooperatibako ekarpenen erregistroan jasota geratuko da, eta bazkideek itzultzeko eskatu ahal izango dute.



Laura eta Pedro

eta bere seme alabak,
Nora eta Víctor

.....
Laura eta Pedrok aspaldi zuten
idea buruan Euskal Herrira
bizitzera etortzekoa, 2021eko
ekainetik bizi dira Itsasondon.
Agian herri handiago batean
ikusten bazuten beraien burua,
orain ez zuten bizitokia
aldatuko. Herri txikia bezain
handia ikusten dute Itsasondo.
.....

LAURA: Laura naiz, 34 urte ditut, eta madrildarra naiz, "gata". Horrek esan nahi du nire gurasoak eta aiton-amona guztiak Madrilgoak direla. Nire haurtzaroa eta gaztaroa langile-klasekoa den Moratalaz izeneko auzoan bizi izan dut, gurasoekin, ahizparekin eta anaiarekin. Gerora ikasketetan aurrera egin, eta formakuntza jasotzen jarraitu nuen. Gizarte-hezkuntza ikasi nuen Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta hainbat graduondo ere egin nituen. Batez ere, buru-osasuneko gaitetan eta espetxeetan lan egiten amaitu nuen. 21 urte nituela ezagutu nuen Pedro, eta hamahiru urte daramatzagu elkarrekin. Erlazioa hasi eta bost urteren buruan independentizatu ginen, nik 26 urte nituenean.

PEDRO: Pedro naiz, baina lagun askok Pedropa deitzen didate; izan ere, nire izen osoa Pedro Pablo da. 39 urte ditut, eta ni ere madrildarra naiz. Informatika eta soinu teknikaria naiz, baina beti euskarri informatikoekin lan egin izan dut. Nire azken lanean ez zidaten kontratua berritu; eta langabezian hainbat urte igaro ondoren, erabaki nuen nire lan bilakatzea betidanik biniloekiko izan dudana grina. Hori dela eta, pare bat urte daramatzat musika ekoizten eta saltzen, batez ere, biniloan.

Nola egiten duzu lan? Lokal bat duzu?

P: Nire webgunearen bidez egiten dut guztia: www.taere-cords.com. 2002an fanzine bat

egiten hasi nintzen, eta bertan Punk, Oi! eta Ska musika taldeak elkarriketatzen nituen. Urteak igaro ahala, Euskal Herriko musika bandekin harremana izaten hasi nintzen, eta euren lehenengo lanak argitaratzen kolaboratu nuen. 2014an Tough Ain't Enough Records izeneko musika-zigilua sortu nuen, "Diska gogorak ez dira nahikoa" esan nahi duena, eta diskoak eta diskoak ateratzen hasi nintzen. Hori guztia zaletasun gisa egiten nuen, eta nire lanarekin uztartzen nuen, horretan bete-betea aritzea erabaki nuen arte.

Nora joan zineten bizitzera independentizatu zinetenean? Eta nolakoa zen zuen egunerokoa?

L: Sanchinarro izeneko Madrilgo auzora joan ginen bizitzera, gure txakur Tais-ekin. Elkarrekin bizitzen hasi ginen ekonomikoki aukera izan genuenean, ikasketak amaitu eta lanean ari ginenean. Edozein bikote gaztek daraman bizimodua generaman guk ere: lana egiten genuen, kalera ateratzen ginen, bidaiatu egiten genuen... ume-rik gabe egin daitekeen guztia egiten genuen (barreak).

Eta nolako bidaiak egiten zenituzten?

P: Udan asko joaten ginen Espainiako Iparraldera (Kantabria, Asturias...); baita Gironara edota Tarragonara ere. Oro har, Espainiako leku asko ezagutzen ditugu, mugitzea gustatzen baitzaigu.

L: Askotan joan gara Berlinera.

P: Punk jaialdi batera. Urtero joaten ginen. Eta gero asko hona, Euskal Herrira, kontzertuetara. Larunbatean etorri, eta igandean itzuli.

L: Eta Europatik ere bidaiatu dugu. Hala ere, egin dugun bidaiarik luzeena Mexikora joan ginenekoa da.

Pedro punka da. Eta zu, Laura? Zer zara?

L: Ni ez naiz ezer. Pedro ezagutu nuenean ez nuen Skin, Punk ezta Oi! mugimenduen berri-rik. Nik inoiz entzun ez nuen musika entzuten zuen, bizimodu desberdina zeraman, hots, nik ezagutzen nuenetik oso desberdina. Eta gustatu egin zitzaidan. Baina beti nire esentziari eutsiz. Niri, esaterako, gehiago gustatzen zait rocka.

Nola bukatu duzue Itsasondon?

L: Espainiako Iparraldean bizi nahi izan dugu beti.

P: Covid-aren eta konfinamenduaren gaiarekin, Madril-dik joan nahi genuela erabaki genuen. Bagenekien Iparraldera joan nahi genuela, baina ez genekien nora. Laurari berdin zitzaion Galizian, Kantabrian, Asturiasen edo hemen, Euskal Herrian, bizitzea. Baina nik argiago nuen hona etorri nahi nuela. Batez ere, lagunak nituelako, Gipuzkoara etorri nahi nuen. Egia esan ez genuen pentsatzen Itsasondo bezalako herri batean bukatuko genuenik, herri handiago batean irudikatzen ginen. Baina oso pozik gaude. Ez genuke erabakia aldatuko.



Pedro 2 urterekin Villalban. (1985)



Laura 2 urterekin. (1989)



Laura Somoko (Santander) hondartzan, 11 urterekin. (1998)



Pedro, Tais txakurrarekin, Madrilgo mendilerroan. (2012)

Eta hona etortzeko erabakia hartu zenutenean Madrilgo zuen lanak mantendu zenituzten?

P: Ez, ni autonomia nintzen ordurako, eta, hortaz, ez nuen arazorik lekuz aldatzeko. Laurak ordezkapen bat bukatu zuen momentu horretan. Beraz, ez genuen hara lotzen gintuen ezer, familia izan ezik.

L: Bai. Urte eta erdiz ordezkatu nuen baja bat, eta orduantxe amaitu zitzaidan kontratua. Momentu ona izan zen hona etortzeko. Ez nuen lan finkorik, eta hona etortzea ideia ona zela iruditu zitzaidan. Badirudi hemen nire lana hobeto baloratuta dagoela: hobeto ordain-

tzen da. Eta ingurua gehiago gustatzen zait. Lan bila nabilela esateko aprobeztatzen dut, bide batez (barreak), ea zer ateratzen den.

Bazenuten seme-alabarik erabakia hartu zenutenean?

L: Bai, Victor. 3 urte zituen. Eta ni haurdun nengoen, Nora nire sabelean zen. Erabakia hartzeko unea zen.

P: Bai, gainera hizkuntzari erreparatuz, momentu egokia zela pentsatu genuen Victor oraindik txikia zelako. Aurrerago zailagoa izan zitekeen. Probatzea erabaki genuen. Beti egongo da itzultzeko aukera.

L: Oraingo, gure bizitzan hartu

dugun erabakirik onenetakoa dela uste dugu.

Eta zergatik Itsasondo?

P: Konfinamendua zela eta, ezin genuen komunitate autonomoen artean bidaiatu. Hasiera batean astebete inguru edo behar adina denborarekin etorri nahi genuen, eta hemen etxea aurkitu. Baina ezin zen. Interneten begira, pisu bat ikusi genuen Itsasondon, beste bat Itsason, eta beste bi Astigarragan. Baimena eskuratu, eta aste-buru batetarako etorri ginen, lau etxeak ikustera. Itsasondoko etxea izan zen gehien gustatu zitzaiguna.

Gustatu al zitzaizuen herria?

P: Etorri ginenean, ez zitzaigun gehiegi gustatu. Ikusi genuen azkeneko etxea izan zen, nekakuta geunden. Gainera euria ari zuen, egun grisa eta tristea zen; eta ez zebilen inor kalean... Baina etxea gustatu zitzaigun, eta hona etortzea erabaki genuen.

L: Nik argi nuen. Pedrori pixka bat gehiago kostatu zitzaion.

Zenbat denbora daramazue hemen bizitzen?

P: Urtebete eta hiru hilabete.

Ezagutzen al zenuten inor Euskal Herrian?

L: Bai, batez ere, Pedrok.

P: Musika dela eta, nahikoa ezagun ditut hemen inguruan (Azpeitia, Azkoitia, Beasain, Hernani, Bergara, Arrasate, Algora...).

Musikariak ezagutuko dituzu, hortaz?

P: Hemengo lagun gehienek musika taldea dute edo izan dute. Hori dela eta, beste batzuen artean Kaleko Urdangak, Orreaga 778, Tatxers, Hell Beer Boys edota Rotten XIII-koak ezagutzen ditut.

L: Pedrok bere burua gaizki saltzen du. Esaten du webgune bat duela, eta biniloak saltzen dituela. Baina ez da horrela. Musika taldeen ekoizlea da.

Zer nolako lana egiten du musika ekoizle batek?

P: Funtsean honako hau da egiten dudana: musika talde batekin bere diskoa kaleratzea

adosten dut, haiek euren abestiak ematen dizkirate, eta nik fabrikara bidaltzen dut lana. Biniloak iristen direnean, musika taldeari ematen dizkiot batzuk; eta, gainerakoak, nik saltzen ditut. Interneten edota sare sozialetan ere eskegitzen ditut, bonbo pixka bat emateko.

Itsasondora iritsi eta gustura sentitu zineten?

L: Bai, egia esan bai... hipotekatu egin gara, imaginatu. Jendeak oso ondo hartu gintuen. Guk ere sekulako esfortzua egin genuen. Haurrak dituzten bikote gazte asko dago herrian, eta hori asko gustatu zaigu. Guretzako hori abantaila izugarria da. Haurren bitartez herrian integratzea askoz ere errazagoa da. Kalean lasai ibiltzeko aukera dago, kolore berdea ikusten da edozein ordutan... guretzako hori ikaragarria da. Konturatu ginen garrantzitsuenak ez dela herria polita edo itsusia den. Poliki-poliki Itsasondorekin maitemintzen joan gara. Hiri handi batean bizi izan gara, eta ez genekien nola moldatuko ginen hemen. Baina gustatu zaigu.

Zure zaletasuna, Pedro, musika da. Eta zer zaletasun dituzu zuk Laura?

L: Gehien gustatzen zaidana bidaiatzea eta kultura ezberdinak ezagutzea da. Horretaz gain, mendi-ibilaldiak egitea edota irakurtzea gustatzen zait. Tatuajeak ikaragarri gustatzen zaizkit, baita beldurrezko zinema ere.

Eta Pedro, gustatzen zaizu zure zaletasuna den hori zure lanbide izatea?

P: Ba ez gehiegi. Azkenean lana izatera pasatu da, bete-behar bat. Baina diskoekin eta biniloekin lan egitea oso ondo datorkit hurrekin denbora pasa ahal izateko. Sarritan, gabeiz lan egiten dut egunean zehar hurrekin egon ahal izateko. Hori bai, egun osoa mugikorrari begira. Beste alde batetik, lantegi batean ere egingo nuke lana.

Eta, zure kasuan, Laura, lana...

L: Gizarte-hezitzaile gisa lana topatzea espero dut. Euskararen gaia eragozpen bat da, baina horretan nago. Orain A1 hizkuntz perfla daukat, eta ikasturte honetan ere ikasten jarraituko dut. Hizkuntza zaila da, baina oso polita. Pedrok eta biok ez dugu hizkuntza lanagatik soilik ikasi nahi, arrazoi sozialengatik ere bai.

Herrian ondo integratu zarete.

L: Bai, eskerrik asko guztioi harreragatik, batez ere, Beiti kalean bizi direnei eta haurrak dituztenei. Gu ekainean ezkondu ginen, ospakizuna egin genuen, aurretik ezkondata geunden baina pandemia dela eta, ospakizunik gabe gelditu ginen. Bada, ezkon aurreko festa antolatu zidaten. Aurrekua dantzatu ziguten, eguzki-lore bat eta Euskal Herriko kondairaren inguruko liburu bat oparitu ziguten... Ikaragarria.

Zer duzue gustuko Itsasondotik?

P: Hain herri txikia izanik denetarik duela: eskola, medikua, tren, farmazia, tabernak, dena... Eta haur asko eta jende gazte asko dagoela.

L: Hori, eta jendea.

Eta zer ez zaizue gustatzen?

L/P: Hondar-parkea (barreak). Ez, beti dago hobetzeko zer edo zer, baina ez dakigu...

L: Iruditzen zait Madrildik edo antzerako lekuetatik etortzen garenoi harrera egiteko eta integratzeko joera dagoela. Baina beste jatorri bateko pertsonen ari garenean, ez da berdina gertatzen. Hau ez da noski Itsasondoren bereizgarria, leku guztietan gertatzen da. Etorkinak integratzen saiatzen gara, baina egiten den saiakera ez dela berdina iruditzen zait. Denok batera joan behar dugu. Baina, beno, bistan da hau ez dela Itsasondoko herriaren bereizgarria, gizartearena orokorrean baizik.

Itsasondon biziko ez bazineke.. non gustatuko litzazueke bizitzea?

L: Oraintxe bertan ez ginatke beste leku batean biziko. Agian, itsasotik gertuago...

P: Hasieran, Azpeitia, Bergara... bezalako herri batean bizitzea zen asmoa. Baina, orain, hemen bizita, iruditzen zaigu beste herri handiago batzuetan ez genuela hain harrera ona jasoko. Gainera, Itsasondo baino isolatuago daude.

L: Gipuzkoa aurkikuntza bat izan da guretzat. Kontzertu eta festa askotara etorriak ginen, baina orain ondo ezagutzen ari gara, eta oso herri politak ditu.

Zer eskatuko zenioke urte berriari?

L: Lana eta osasun mentala.

P: Denbora librea.

L: Eta euri gehiago. Bai, badakit hemen euri asko egiten duela, baina aurten aldaketa klimatikoa nabaritu da.

Bidaia izaten jarraitzen duzue?

L: Duela gutxi Norvegia izan gara... baina bakarrik, haurrik gabe. Haurrak amonekin gertatu ziren. Egia esan, familiaren laguntzaren falta sumatzen da. Ez gara haurrak besteekin uztekoak, baina noizean behin ondo etortzen da.

P: Hemen bizitzearen alde txarra da familia urrun dugula.

Anekdotaren bat...


L: Kaxintane tabernara sartu nintzen lehenengo aldian Jorge zegoen. Alkoholik gabeko zerbeza bat eskatu nion. Zerbezaren izena esan zidan, ingelesez. Eta nik euskaraz ez nekiela erantzun nion. Ingelesean esan zidan, baina (barreak). Bestetik, ama etorri zenean "xaiko" esaten joaten zen kaltetik, "kaixo" esan beharrean, ze lotsa!

P: Bitxikeria bat. Gure lehenengo etxean, bikote bat genuen bizilagun. Gizona ni bezala deitzen zen, Pedro, eta Lauraren abizen bera zuen.



Mexikora bidaia 2017 (Teotihuacán)

Mundu osoan, basoak bizitzaren euskarriak dira, Kontinenteen %30 hartzen dute eta horien biodibertsitatearen %80. Munduko biztanleriaren %25 ingururi biziraupena eta diru-sarrerak ematen dizkiete. Balio kultural, sozial eta espiritualak dituzte, eta tradizioz herri indigenak bizi diren lur zati handi bat estaltzen dute.



Basoak ezinbestekoak dira gizartearentzat eta planetarentzat

Basoek eta beste baso-lurrek Europaren %40 baino gehiago hartzen dute, eta munduko baso-eskualde aberatsenetako bat dira. Egurra eta zurezko produktuak eskaintzeaz gain, gure basoetan ekosistema ugari daude, funtzio anitzak dituztenak eta Europako biodibertsitatearen zati handi bat biltzen dutenak.

Beraien ekosistemen zerbitzuek gure osasunari eta ongizateari laguntzen diote. Horretarako, honako eginkizunak dituzte: uraren erregulazioa; elikagaien, sendagaien eta materialen hornikuntza; hondamendi arriskuen murrizketa eta kontrolaren bidez, lurzorua egonkortzea eta higadura kontrolatzea; airea eta ura araztea eta aisialdirako eta ikasteko etxe naturala izatea.

Basoak ere ezinbesteko aliatuak dira klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta horietara egokitzeko. Basoak gero eta gehiago aipatzen dira kar-

bono-hustutegi gisa duten funtsezko funtzioagatik.

Hala ere, egungo kudeaketa-praktikak ez datoz beti bat baso-ekosistemetan biodibertsitate handia bermatzeko eta lehendik dagoen karbono stocka zaintzeko behararekin. Egur-eskaria areagotzeaz gain, basoek eta haien ekosistemek airearen eta uraren kutsadura-ri, hiri-hedapenari, paisaiaren zatiketari eta habitat eta biodibertsitatearen galerari aurre egiten jarraitzen dute. Basogintzako praktika jasanezinak saihestu edo zuzendu behar dira.

Gainera, klima-aldaketaren eragina, sute, izurrite eta muturreko eguraldi gehiago eragin dituen, lehorteak eta ekaitzak barne, presioa areagotzen ari da basoetan. Gaur egun, Europar Batasuneko natura-zuzentarauen arabera, EBko baso-habitaten %15ek bakarrik du kontserbazio-egoera egokia.

Horregatik, 2030erako, EBko baso estrategia berriak basoen kantitatea eta kalitatea hobetzeko ikuspegi bat eta ekintza zehatzak ezartzen ditu, haien babesa, leheneratzea eta erresilientzia indartzeko.

Europako basoek helburu dute klima-aldaketak dakartzan baldintza berrietara, eguraldi- muturrekoetara eta ziurgabetasun handira egokitzea. Hori alde aurretiko baldintza da, basoek beren funtzio sozioekonomikoak betetzen jarraitzeko eta populazio oparoa duten landa-eremu biziak bermatzeko.

Itsasondan ere hamar urte igaro dira udalerriko basoak berreskuratzeko erabakia martxan jarri zenetik. Mapan ikusi daitekeen moduan, lursail ugari dira jabetza publikoa izatera pasatu direnak; dagoeneko 120 ha-tan (udalerraren %15) basoa berregite bidean eta kontserbazio egoera egokitzen doaz, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, horretarako behar diren lanak egiten ari baita udala.

Festen kronika

.....
Aurten bai! Aurten,
esan dezakegu herriko
jaiak ospatu ditugula,
normaltasunez!
.....

Jai batzordea ekainean elkar-
tu zen, eta lehen bilkura ho-
rretan, herri elkarteez gain,
kultura lantaldeko kideren batek
eta herriko gazteek parte hartu
zuten. Bertan, aurrez egiten ziren
ekintzak eta ohikoak direnak ze-
rrendatzeaz gain, musika taldeez,
Dj-ez... aritu ginen. Uztailean eta
irailean beste bi aldiz elkartuta
osatu zen programazioa, eta feste-
tako lanen ardurak guztion artean
banatzeko zerrendak osatu geni-
tuen. Hamaika txikieria, herriko
festak mundial ospatzeko!

Hilaren 22an, ostegunez, hasi
genituen herriko jaiak. Lehenik he-
rriko haur eta gazteek "ongi pasa
festak" murala egin zuten plazan.

1

Ondoren, Bizi nahi elkartean, jo-
lasak eta txokolate jana egin ziren.
Familia ugari parte hartu zuen
bertan, eta oso giro ona izan zen.
Eskerrik asko Bizi Nahi elkarteko
jubilatuei! 2



1



Ekintza horiekin, ostiralera berotzen hasi ginen, eta ostiral arratsaldean jada, festa usaina nabari zen plazan. 16:30erako prest ziren guraso elkarteko kideak, zinta karrera hasteko. Haurrak ere prest ziren! Herriko dendetan zein tabernetan erabiltzeko 107 opari txartel banatu ziren, haurren artean. Ez da sari makala! Mila esker guraso elkarteko kideei zein herriko merkatariei eta ostalariei. **3**

Ondoren izan ziren haurren zein helduen lagunarteko jolasak! Hasiara batean helduak hotz baziren ere, gerora animatu ziren, eta hainbat lagunarte sortu ziren haurrak eta helduak elkarrekin, lantaldean, jolasean aritzeko! Zortzi froga egin genituen, eta giro ezin hobea sortu zen! Piramideak sortzen hasi, eta hainbat objektu aurkitzeko ahalaginetan erabat murgildu ziren parteideak. Bejondeizuela parte hartutako guztioi; eta, nola ez, antolaketa lanetan ibili ziren Nahia, Haizea, Garazi eta Enareri! **4**

18.30ean iritsi zen festak ofizialki hasteko momentua. Pregoi-lariak, Bizi nahi elkartekoak izan ziren. (artikulu zehatz bat dago honi buruz aldizkari honetan) **5**

Batukaleroek soinu zute zuten herria, eta herri afarirako girotu ginen! **6**

Herri afarian jendetza bildu zen. Denera 160 txartel saldu ziren. Giro aparta egon zen. Menuaren inguruan hainbat iritzi jaso ziren, eta guztiak kontuan hartuko dira hurrengoetarako. Giro aldazina izan zen! Eskerrik asko, urtero legez, Amunda eta laguntzaileei. **7**




8



12



13



17



18



23:30ak ziren eta dantzarako tarteak hasi zen. Trikidantz taldeak giro paregabea jarri zuen plazan, eta belaunaldi ezberdinak dantzan murgildu ziren! Herriko dantzariak ere dantza egin zuten, eta momentu polita bizi izan zen herriko plazan. Goizaldeko baratxuri zopa eta txokolatadak ez zuen hutsik egin! **8**

Ostiraleko parranda ez zen oztopo izan larunbatean Itsasondo indioz zein bakeroz betetzeko. Mozorro egunak izanik, hainbat kuadrilla animatu ziren mozorrotzera.

Helduenek goiz eresiarekin hasi zuten eguna; eta, gainerakoek, Beitiko igoerarekin. **9**

Urtero legez, Iker Mendizabalen eskutik paella erraldoia dastatzeko aukera izan genuen. Aurten 130 txartel saldu ziren. Oso goxoa! Eskerrik asko, Iker, aurtengoan ere! **10**

11

Paella asterako Txan magoak prestaketak hasi zituen. Arratsaldean eskaini zuen saioa bikaina izan zen, magia egin zuen berriz ere, guztion txunditurarako! **12**

Aurtengoan, pena handiz, baina *Ijito* show-erako talde bakarrak eman zuen izena. "Macarena" abestiarekin dantzan jarri gintuzten. Ondoren, mozorro diploma banaketa hasi zuten herriko neska gazteek. Aurrez sailkapena egin, eta hainbat kuadrilla igo ziren oholtzara. **13**

Otordutik otordura pasatuz, guraso elkartekoek hanburgesa-jana eskaini ziguten. 250 hanburgesa saldu zituzten aurtengoan. Giro polita sortu zen frontoi inguruan, Matraka Elektrotxarangak areagotu zuena! Abesti zahar zein berriek dantzan jarri gintuzten! **14 15**

Gaua amaitzeko zer hobe DJ gazte bat baino, gazteak zein ez hain gazteak girotzeko? DJ Unax Naza izan genuen gurean, eta askorentzat musika estilo berria izan zen arren, herriko gazteek oso egoki baloratu dute bere saioa. **16**

17



Igandea, festetako azken eguna izanda ere, azken unera arte izan genuen festa giroa. Goiz eseriaren ondoren, frontoian izan genituen puzgarriak, goiz eta arratsalde. Egurraldi iragarpen txarra zela-eta, Beitian ez egitea erabaki genuen. **18**

Oihiko hamaiketakoak ere ez zuen hutsik egin, eta guztion gozagarri, jan ugari izan genuen dastatzeko. **19**

Pilota partidu bikainez gozatze-ko aukera izan genuen, arratsaldean. Lazkaoko pilota eskolako kideak izan genituen herrian.

Festak amaitzeko ordua iritsi zen, eta *ljitto* igoera eginez, sagardo dastaketari ekin genion, festak zapore onez amaitzeko. **20**

Jai batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu ekintzetan laguntzen ibili diren herriar boluntario guztiei. Guztion artean eta guztiontzat ez bada, ez baitu zentzurik festak egiteak. Eskerrak, baita ere, herriko elkarte eta gazteei ere, ekintzak antolatu eta dinamizatzeagatik. Gaizki egindakoen inguruan barkamena eskatu, eta ondo egindakoak baloratu nahi ditugu. Ikusi bezala, ekintza asko eta lan asko baitago honen guztiaren atzean. Udal langileen lana ere aipatu nahi genuke, eta beren prestutasuna eskertu. Hurrengo urtean, hobeto eta gehiago! **21**

Hemeroteka

KIROL ASTEA (MAIATZAK 16-20)

Herri kirolak haurrentzat (maiatzak 18)

Kirol astearen barruan, hezitzaileek gidatuta, herri kirolean ibili ziren herriko txikiak eta ez horren txikiak.



Kirol egokitu saioa (maiatzak 20)

Gipuzkoako kirol egokitutako federazioak aurtien ere kirol egokitu saioa eskaini digu, LH5 eta LH6 mailetako ikasleentzat. Giro jatorrean, aniztasun funtzionalen bat dutenek kirola nola egin dezaketen ikusarazteko ekintza aparta izan zen.



Aitor Garmendiarekin solasaldia (maiatzak 20)

Herritar ugari bildu zen Aitor Garmendia herritarren elkarrizketa entzutera. Patxada eta detaile handiz bizikletaren munduko bizipenak kontatu zizkigun.



Mendi irteera Urkiara (maiatzak 21)

Guraso elkarteak antolatuta, Urkira irteera egin zuten. Bi ibilbide egiteko aukera izan zen.



Bua txabal monologoa (maiatzak 27)

Herriko gazteei bereziki eskainitako saioa izan zen: mugikorrak, sare sozialak, lagunekin harremanak, bikote harremanak... hausnarketa eta berriraketa egiteko aukera paregabea izan genuen.



Nola dago goi mailako hezkuntza? hitzaldia. (ekainak 3)

Jon Diaz Egurbidek hezkuntza publikoaren egoera aurkeztu zigun.





Baso biziaren jardunaldiak (ekainak 4)

Itsasondon ospatu ziren Baso biziaren jardunaldi saioak. Mendi bueltaz gain, batzarra egin zen, aurrerantzean landu beharreko ildoen inguruan.



Bertso saioa (ekainak 10)

Punta-puntako bertsolariak izan genituen frontoian kantuan: Amets Arzallus, Onintza Enbeitia, Maialen Lujanbio eta Arkaitz Estiballes. Felix gai-jartzaileak gai freskoak proposatu zizkien, eta giro aparta sortu zen bildu zen jendetzaren artean.



Harrera eguna (ekainak 15)

Urtero legez, aurten ere etorri berriei harrera egiteko ekimena izan zen herrian. Herriko elkarteak eta zerbitzuak erakutsi ziren, elkar ezagutzeko aukera emanez.



Musika eskolako emanaldia (ekainak 20)

Gure artistek, aurten ere, urtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten. Aurten gainera talde gisa entseguetan ibili direnek jotzeko aukera izan zuten.



Eskolako festa (ekainak 21)

LH6 mailakoei agur esateaz gain, ikasturteari ere amaiera emateko festa giroa baino aproposagorik ez dago.



San Joan sua (ekainak 23)

Aurten, San Joan sua ospatzeko aukera izan da. Herritarrak gogotsu zeuden, eta asko izan dira festara gerturatu direnak.

Aita mari filmaren emanaldia (ekainak 27)

Ongizate lantaldekoek antolaturik, Aita Mari bar-kuak egiten etorkin jasoketaren berri ematen duen dokumentala ikusgai izan genuen.



Garagargo festa eta Star Blues kontzertua (ekainak 24)

Musika pixka bat da garagardo azokari hasiera emateko modurik onena. Star Blues taldeko ki-deak izan genituen gurean.



Udalekuak (ekainak 27 - uztailak 22)

Aurten, azken urteetako udaleku parte-hartzaileena izan dugu, 40 haurrekin. Ekintza ugari izan dituzte, eta jolaserako tarteak ere hartu dute, euskaraz. Ederki ibili dira!



Kaleko ihesgela (uztailak 6)

Ekimen berritzailea izan genuen gurean, inguruko herrikoak ere parte hartzera animatu ziren froga ezberdinez osaturiko jolasean aritzera. Herriko txoko guztiak zeharkatu zituzten froga ezberdinak gainditzeko.



Herriko jaiak (irailak 23-25)

Jaien kronika atalean zehaztapen gehiago.



Gudari eguneko ekitaldia (irailak 27)

Ohi den moduan Txiki eta Txato gogoan izan ziren, frontoian buruturiko ekitaldi xumean.



Hitzez ekiteko garaia

Badator Euskaraldia!

2 022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu ariketari. Kaleak beteko ditugu berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazago izan dadin. Belarriprestok eta ahobiziok aukera berriak izan ditzagun lan egingo dugu elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune. Hitzez ekiteko garaia heldu da. Irailaren 28tik aurrera, belarriprest eta ahobizi guztiek eman dezakezue izena Euskaraldian parte hartzeko!

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA

Eman izena, parte hartu Euskaraldian.



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari:

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusitako eta adostu ohitura aldatetako.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz: Komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.


Eutsi euskarari!:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



euskaraldia.eus

Gomendioa



¿COMO HACER PARA QUE TE PASEN COSAS BUENAS?


Marian Rojas Estapé
2022

Ikuspegi zientifiko, psikologiko eta humanoa uztartuz, egileak gogoeta sakona eskaintzen digu, aholku baliagarriak zip-riztindua eta bokazio didaktikoa duena, geure gaitasunen aplikazioari buruz, bizitza osoa eta zoriontsua izateko ahalegi-nean: garunaren eremu jakin batzuk ezagutzea eta optimizatzea, bizitzan helburuak eta xedeak finkatzea, borondatea gauzatzea, adimen emozionala martxan jartzea, asertibotasuna garatzea, autokritikaren gehiegizko exigentzia saihestea?

Berrikuntzak



Ahizpak eta altxorrak
Betzaida Urtaza



Black is Beltza II Ainhoa
Fermin Muguruza



Gureak ere badira
Lur Albizu eta
Eraitz Saez de Egilaz



Iruleak
Garazi Albizua eta
Olga Carmona



Las madres
Carmen Mola



Luaren itzala
John Andueza



Mahare azkarra
Betzaida Urtaza



Once millones de ejemplares vendidos
XXXXXXXXXX



Xamaren herri magikoa
Txagü Magu

Errezeta



Askotariko barazkiak urdaiazpiko- lauzekin eta oie txirbilekin

Osagaiak: urdaiazpiko iberikoa, foie mi-cuit, azalorea, brokolia, alkatxofa, zorroak, azenarioa, kalabazina, espinakak.

Barazkiak, espinaka izan ezik, gure gogara zatitzen ditugu, eta bakoitza bere aldetik egosten ditugu, dentean uzten saiatuz. Dena prest daukagunean, barazkiak zartaginean salteatzen ditugu eta orain espinaka gehitzen diogu, gatz puntua ematen zaio. Urdaiazpiko-lauza batzuk moztu eta foie txirbilak atera genituen ebakigailuan. Barazki base bat jartzen da, eta lehenengo gainean urdaiazpikoa, eta foiearekin amaitzen dugu.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA
Orain zer egiten dezu?
Hitz egiten irabazi zuen.
Zazpi kilotako legatza.

EUSKARA TXUKUNA
Orain zer egiten ari zara?
Hitz eginez irabazi zuen.
Zazpi kiloko legatza.

Euskararen aurkako erasoak

2022-an Behatokiak jasotako hizkuntz eskubideen zenbait kexa, zoriontze eta lorpen.

KEXAK

- Bezeroak komunikazioak euskaraz nahi dituela adierazita izan arren, EUSKALTElen izenean egindako deietan ez dute euskarazko arreta eskaintzen.
- BBK Live jaialdiaren milaka edalontzitan hainbat hizkuntzatan ageri da mezua. Bada, gaztelaniazko leloa nagusitzen da tamainan, eta euskarazkoa atzerriko hizkuntzen pare jartzeaz gain, oso trakets eta era zabarrean agertzen da.
- Ertzaintzaren aldetik ez dira herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen: euskarazko arreta ukatzea, herritarrek euskaraz egin arren salaketak gaztelaniaz tramitatzea, jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzea...

ZORIONTZEAK

- Landetako Reasol-Levieux kanpina, erreserba euskaraz egin ahal izateagatik.
- Artiach gailetak, Sanferminetako iragarkian euskara txertatzeagatik.
- Aiarako Adigrafik enpresa, zerbitzu guztiak eta webgunea euskaraz izateagatik.
- Gipuzkoako II Capo janaria etxera eramateko enpresari, bere eskaintza euskaraz zabaltzen duelako eta webgunea euskaraz ere baduelako.

LORPENAK

- Irungo anbulategian ordezkotza profesionalak prestaketa ematen hasi dira euskaraz egiteko gai izan daitezen.
- Zizur Nagusiko Udalak seinaleetika euskaraz ere jarri du.
- Zurich aseguru-etxeak polizak euskaraz jasotzeko aukera jarri du.
- Eroskik ohartarazpenak bidali ditu Euskal Herrian dituen gasolin-degi guztietara, karteldegia hizkuntza ofizialetan jarri behar dutela jakinarazteko.

Kuriositateak

Zonifikazioaren aurkako manifestazioa egingen dute Tuteran, urriaren 22an.

Tuteran, urriaren 22an, manifestazioa egingen dute Euskararen Legearen Zonifikazioaren aurka eta Nafarroako euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen alde. Hordago! mugimenduak antolatutako protesta Foruen plazatik abiatuko da 17:30etan. Manifestaziorako plazaratu duten manifestuaren arabera, antolatzaileek "inolako diskriminaziorik gabeko Nafarroa batean" bizi nahi dute, "guztiok berdinak garen lurralde batean", zeinean "Nafarroako lekuaren arabera eskubide ezberdinak ez ditugun". Gauzak horrela, "hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duen eta aniztasun hori mehatxu gisa ikusten ez duen lurraldea" nahi dute.

agenda

URRIA

27an: Bingoa, jubilatuetan. 17:00etan.

31an: Gau beltza.

AZAROA

4an: Gazteok salto! 14 eta 18 urte arteko gazteentzako saioa. 18:00etan, Gaztelekuan.

2an: Memoria tailerra, jubilatuetan, 17:30ean.

7an: Ongizate batzordea, bilera gelan, 17:00etan.

7an: Lurralde batzordea, bilera gelan, 19:00etan.

9an: Herri bizitza batzordea, kulturgunean, 17:30ean.

9an: Nobela aurkezpena, Betzaida Urtaza, 19:00etan kulturgunean.

14tik 20ra: Gotzon Izquierdoren lanen erakusketa.
(argazkian)

25ean: Kantu afaria.

ABENDUA

3an: Euskararen eguna.

14an: Memoria tailerra, jubilatuetan, 17:30ean.

24an: Olentzero eta Mari Domingi.

26tik 5era: Gabonetako ekintzak.

2023rako ekintzak hiruileko honetan zehaztuko ditu kultura lantaldeak, horregatik ez dugu urtarileko agenda txertatu.



telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarte	943 881339
Itsaskoop janari denda	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhua Barandiaran
Asier Arbilla
Bizi Nahi elkarte
Danel Etxeberria
Eneritz Albizu
Erkuden Mendizabal
Iñaki Aizpuru
Iturriziki guraso elkarte
Haur eskola
Hitzar komunitatea
Jone Iturrioz
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkipe eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldiakaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA OTSAILA
IZANGO DUZUTELA ETXEAN**



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**